

Joan Bagues, Liburutegi Musikalen Nazioarteko Elkarteko lehendakariorde

DONOSTIA

Eresbil Euskal Musikaren Artxiboko zuzendari Jon Bagues izendatu dute Liburutegi Musikalen Nazioarteko Elkarteko lehendakariorde, aipatu elkartearen Sydney egunotan egiten ari den biltzarrean.

Eresbilek prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, Bagues Liburutegi Musikalen Nazioarteko Elkarteko zuzendaritza berrian sartuko da eta lehendakariordetza bat hartuko du, Alemaniako, Estoniako eta AEBetako ordezkariekin batera.

Liburutegi Musikalen Nazioarteko Elkarateak dokumentazio musikalaren instituzioak eta profesionalak biltzen dituela gogorarazi du Eresbilek. Gaur egun, bost kontinenteetako 53 herrialdetan banaturik dauden 1.800 kide ditu.

Bagues Artearen Historian lizentziatua da eta Bartzelonan doktoratu zen. Artxibogintzako ikasketak Madrilan egin zituen. Eresbilgo zuzendaria izateaz gain, Peñaforida Kapera antzinako musika taldearen zuzendaria ere bada. Izan ere, berak sortu zuen, 1985ean.